

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

Gizarte Zerbitzuen Saileko diputatuaren 100/2014 Foru Agindua, irailaren 2koa, izendatzearena Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluko batzorde iraunkorreko kideak

Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 15eko 28/2010 Foru Dekretuak, Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseilua eratu zuenak, bere 4. artikuluan -Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 19ko 33/2012 Foru Dekretuak emandako idazkeran- xedatzen duenez, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak izendatuko ditu Arabako Foru Aldundiak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, udalek, gizarte zerbitzuen erabiltzaileen erakundeek, elkargo profesionalek eta idazkaritzak kontseilu horretako osoko bilkuran izango dituzten kideak.

Lehen aipatutako 4. artikulua xedatutakoarekiko analogiaz, nola 28/2010 Foru Dekretuan ez den esaten nork izendatu behar dituen Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluaren batzorde iraunkorreko kideak eta nola haiek aldi berean osoko bilkurako kideak izan behar diren (7. art.), ulertu behar da Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuari ere dagokiola kontseilu horretako batzorde iraunkorreko kideak izendatzea.

Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluaren osoko bilkurak 2013ko apirilaren 26an bere batzorde iraunkorra sortzea eta eratzea onartu zuen. Hortaz, beharrezkoa da batzorde iraunkorreko kideak izendatzea.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 8ko 345/2014 Erabakiaren bidez, Arabako Foru Aldundiak AGZLKren batzorde iraunkorren izango dituen kideak izendatu dira.

Abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarenak, 40.10. eta 40.19. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa- Arabako Foru Aldundiak Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluko batzorde iraunkorren izango dituen kide hauek izendatzea:

– Lehendakaria: Marta Alaña Alonso, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua

– Lehendakariordea: Paloma Aranceta Arilla, Gizarte Zerbitzuen zuzendaria

– Kideak:

– Titularra, Jagoba Gómez Alonso, Gizarte Sustapenaren zuzendaria

Ordezkoa, Ernesto Terrazas Abascal, Funtzio Publikoko zuzendaria

– Titularra, Oscar Beltrán de Otorola Martínez de Antóñana, Diputatu Nagusiaren Kabinetearen zuzendaria

Ordezkoa, Daniel Martínez Monge, Diputatu Nagusiaren Saileko Idazkaritza Tekniko-Juridikoko Zerbitzuaren burua.

Bigarrena. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluko batzorde iraunkorren izango duen kide hau izendatzea:

– Titularra, Estibaliz Martínez Pinedo, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko zuzendari kudeatzailea.

Ordezkoa, Miguel Angel Monteserín Jimenez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Antolamendu eta Informatika Arloko zuzendariorde teknikoa.

Hirugarrena- Udalek Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluko batzorde iraunkorreetan izango duten kide hau izendatzea, EUDELeK hala proposatuta:

– Titularra, Silvia García González, Zigoitiko Udaleko zinegotzia.

Ordezkoa, Ana Salazar Aguayo, Kuartangoko Udaleko zinegotzia.

Laugarrena- Gizarte zerbitzuen erabiltzaileen erakundeek Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluko batzorde iraunkorreetan izango dituzten kide hauek izendatzea, erakundeek berek hala proposatuta:

– Titularra, Ildfonso Urquijo Castillo, IRSEko teknikaria.

Ordezkoa, Cristina Rojo García, IRSEko teknikaria.

– Titularra, Lucía Peña Martínez, ASAFESeko lehendakaria.

Ordezkoa, Ana Belén Otero Miguélez, ASAFESeko kudetzailea.

– Titular, Txomin Ondarre Díez, GURUTZE GORRIko Gizartegintza eta Enplegu zuzendaria.

Ordezkoa, Yolanda Susaeta Racero, GURUTZE GORRIko Gizartegintza eta Enplegu zuzendariordea

– Titularra, Silvia Apodaca Arrizabalaga, EGINAREN EGINEZeko kidea.

Ordezkoa, Igor Navarro Brea, EGINAREZ EGINEZeko kidea.

Bosgarrena- Elkargo profesionalak Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluko batzorde iraunkorreetan izango duten kide hau izendatzea, elkargoek berek hala proposatuta:

– Titularra, Ainhoa Berasaluce Correa, Arabako Gizarte Laneko Elkargo Ofizialeko lehendakaria

Ordezkoa, Juan Jordana Zorrilla, Arabako Gizarte Laneko Elkargo Ofizialeko kidea.

Seigarrena- Pertsona hau izendatzea Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluko batzorde iraunkorreko idazkari:

– Titularra, Elena Martín Zurimendi, Gizarte Zerbitzuetarako Idazkaritzaren burua

Ordezkoa, Itziar Gonzalez de Zarate Ruiz, Gizarte Zerbitzuetarako Idazkaritzako goi-mailako teknikaria.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko irailaren 2a

Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua

MARTA ALAÑA ALONSO

Gizarte Zerbitzuen Saileko zuzendaria

PALOMA ARANCETA ARILLA